

LAN-ESKAITZA:

DURANGALDEKO IBAIZABAL IKASTOLA KOOPERATIBA-ELKARTEAK
INGELESEKO eta FRANTSESEKO IRAKASLEA BEHAR DU ORDEZKAPEN
BATERAKO:

Bete beharreko baldintzak:

1> Hemen adierazitako ikasketetakoren bat izatea:

Lizentziatura edo gradua:

Ingeles Filologia + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo goragokoa Frantsesean ; edo Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa edo C hizkuntza = Frantsesa); edo Frantses filologia + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa Ingelesean; edo Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo goragokoa Frantsesean + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa Ingelesean.

2> Euskara: C1 maila

3> Irakasleen Prestakuntzako Masterra.

Baloratuko dira:

- 4> Ibaizabal Ikastolaren zein EHko ikastolen proiektuaren ezagutza, partaidetza zein bertan esperientzia.
- 5> Lan-esperientzia orokorra (baita hezkuntzatik kanpokoa ere).
- 6> Talde-lanean esperientzia edo formazioa.
- 7> Herrigintzan esperientzia.

ESKAITZEN DA:

- Ingelesa eta Frantsesa Batxilergoan ematea.
- Kontratuaren iraupena: lanean hastea berehalakoa. Irakasle titularren gaixotasunak iraun bitarteko ordezkapen-kontratua.
- Lanaldia: % 100

➔ Bidali eskabideak (curriculum) zuzendaria@ibaizabalikastola.eus helbidera 2025eko irailaren 12a baino lehenago, **HIZKUNTZAK** erreferentziarekin.